

PROYECTO SUBVENCIONADO POR LA DIRECCION GENERAL DE TURISMO Y COMERCIO
TURISMO ETA MERKATARITZA ZUZENDARITZA NAGUSIAK DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUA

Reyno de
Navarra



Nafarroako Erresuma
Nafarroa

Nafarroako Gobernua
Garapen Ekonomikorako
Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de
Desarrollo Económico

Iruñeko Merkataritzaren Plan Estrategikoa



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala



**Iruñeko Merkataritzaren Plan Estrategikoa
2017 - 2021. Txosten Metodologikoa**

(IMPE 2017 - 2021)

Aurkibidea

- | | |
|--|----------|
| 1.- Parte hartze prozesua eta aurreko informazioen sintesia | 5 |
| 2.- IMPE 2017 – 2021 eraikuntzan lan-prozesu operatiboak | 9 |

Eranskinak:

1. Eranskina: Merkataritza mahaiekin lotutako laguntza materialak
2. Eranskina: Lan mahaiekin lotura duten laguntza materialak

1.- Parte-hartze prozesua eta aurreko informazioen sintesia

Iruñeko Plan Estrategikoa 2017 – 2021 (IMPE 2017 – 2021) garapenerako, 2017ko iraila eta 2018ko otsailaren artean burutua, parte-hartze prozesu ireki eta jarraitua ireki da, ondorengo helburuekin:

- { Merkataritza ehunaren eta Iruñeko udal sail desberdinetako informazioak txertatu eta egiaztatu, IMPE 2017 – 2021eko hasierako diagnosi fasean (I Atala.- Diagnostika)
- { Aurrerapenak partekatu IMPE 2017 – 2021aren eraikuntza prozesuan merkataritza elkarte-ehunarekin eta hiriko Udal Merkatuekin
- { IMPE 2017 – 2021eko Ekintza Planean proposatutako ardatzak, lerroak eta ekintzak lehenetsi eta adostu merkataritza sektorearekin
- { Ekintzen aurrekontuaren banaketa merkataritza elkarte-ehunari komunikatu eta eurekin batera hitzartu
- { Sektoreko ekarpen partikularrak jasotzea, Ikertaldeko kontsultariekin zuzeneko harremanaren bitartez.

Horrez gain, metatutako informazioa eta know how-a optimizatu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo sailetik bultzatutako jardueren ebaluaketa egin, eta udalerrri mailako merkataritzaren esparruko txosten diagnostiko koherentea eta eguneratua eraikitzeko helburuarekin, Ikertaldeko aholkulari taldeak lehendik existitzen den dokumentazioaren analisi eta sintesi prozesuari ekin dio (Ikusi Analizatutako aurreko Informazioen Erlazio Taula).

Aurretiaz analizatutako Informazioen Erlazio Taula

1. ESKARIAREN AZTERKETA 2016	- Erakargarritasunaren Azterketa			
	- Erosketa Joeren Azterketa			
	- Txosten Exekutiboa			
2. ESKAINTZAREN AZTERKETA 2016	- Eskaintzaren Ikerketa Txostena			
	- Auzokako Inkesta Analisia			
	- Txosten Metodologikoa			
	- Txosten Exekutiboa			
3. AURRETIKO MERKATARITZA AZTERKETAK	MEP 2013-2015	- Merkataritza Ekintza Plana 2013-2015 (MEP) – Plan de Actuación Comercial (PAC)		
		- Neurketa Fitxak MEP 2013-2015: Dokumentu honek MPE 2013-2015ean ezartzen diren 100 neurri bakoitzeko fitxa bat jasotzen du (helburua, deskribapena, adierazleak...)		
		- MEParen elaborazioan erabilitako azterketak	- Eskariaren Azterketa	- Erakargarritasun Azterketa 2012
			- Erosketa Joeren Azterketa 2012	
			- Eskaintzaren Azterketa 2012	
			- Iruñeko Merkataritzaren Lan Merkatuko Azterketa	
		- MEParen exekuzioa	- Iruñeko Hirigintza Komertzialaren Analisia	
			- 2013 urtea	- Neurrien Exekuzioa 2013: urtea amaitzerakoan eta adierazleen laburpen bat
			- 2014 urtea	- Neurketa Fitxak 2013: gauzatzea eta fitxa bakoitzerako eskuratutako adierazleak
			- 2015 urtea	- Neurrien Exekuzioa 2014: urtea amaitzerakoan eta adierazleen laburpen bat
		- Neurketa Fitxak 2014: gauzatzea eta fitxa bakoitzerako eskuratutako adierazleak		
		Informazioa Memoria 2015ean dago		
- Ezquiaga Arquitectura, Sociedad y Territorio S.L. eginiko Iruñeko Hiri-merkataritzaren Azterketa,				
- Taller de Sociología S.L. eginiko Alde Zaharreko oinezkoentzako bide ikerketa				
4. ARLOETAKO MEMORIAK	- MEMORIA 2013 (Merkataritza eta Turismoa)			
	- MEMORIA 2014 (Merkataritza eta Turismoa)			
	- MEMORIA 2015 (Merkataritza)			
	- MEMORIA 2016 (Merkataritza)			
5. MERKATARITZA MAHAIA	- Merkataritza Mahaiaren			
	- Aktak	- 2016 urtea	- otsailaren 19	
			- maiatzaren 4	
	- 2017 urtea	- azaroaren 3		
		- otsailaren 23		
		- martxoaren 23		
- ekainaren 6				
		- ekainaren 27		

Zentzu honetan, telefono bidez eta telematikoki¹ Iruñeko txikizkako merkataritzaren esparruko lan merkatuaren bilakaera eta egoerari buruzko datuak eskatu zaizkio (JESN 47) Nafarroako Gobernuko Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiari. Ondorengoei buruzko datuak: Iruñean formalizatutako kontratu kopurua, txikizkako Merkataritza erregistratutako kontratu kopurua (motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik) kontratu mota, sexua, adin tartea eta hezkuntza mailaren arabera; txikizkako merkataritzako langabeak (motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik) sexuaren, adin tartearen eta hezkuntza mailaren arabera 2012 eta 2017ko lehen sei hilabetearen artean. Aholkulari taldeak hileroko datu hauek prozesatu eta Iruñeko Merkataritzaren Lan Merkaturia 2012 – 2017ari buruzko txosten zehatza burutu du.

Osagarri gisa, Ikertaldeko aholkulari taldeak eta arkitekto kolaboratzaileak **hiri gunetako ibilbide desberdinak egin dituzte baita zuzeneko behaketa** ere (merkataritza erdigunea + auzoak) merkataritza ardatz nagusiak identifikatzeko, nahiz eraberritze konkretu bate do/eta esku-hartzea posible den espazioen identifikaziorako².

IMPE 2017 – 2021eko Diagnosi atalean txertatutako mapen tratamenduari dagokionez, Iruñeko udalerriko informazio grafikoa erabili da, baita Eskualdekoa ere, Nafarroako Gobernuko Eskualde Aberastasunaren Zerbitzuko katastro zerbitzuaren bitartez (planoen koadrante arabeko deskarga eta ondorengo fusioa eta muntaia). Ondoren, mapa horiek Autocad programaren bitartez landu dira eta euren gainean informazioak ilustratu dira grafikoki Photoshoparen bitartez.

Azkenik, aipatzekoa da aholkulari taldeak kabinete propioaren lanaren bitartez, informazioa laburbildu eta **ondorengoei lotutako bi Dossier informatzaile** garatu ditu:

- **Lokal hutsen inguruko erabilera estrategiak**
- **BIDs Business Improvement Districts**

¹https://www.navarra.es/home_es/Temas/Asuntos+sociales/Observatorio+realidad+social/Peticion+de+informacio

² Burgoen Plaza Alde Zaharrea, "pintores" Iturraman...

2.- Lan prozesu operatiboak IMPE 2017 - 2021-aren eraikuntzan

Aurretiko informazioaren parte-hartze eta integrazioaren helburu bikoitz hau betetzeko, ondorengo lan prozesuak egituratu dira operatiboki:

- a) **Webgune zehatz** baten sorrera prozesuaren martxan jartzeko -2017 iraila-, , proiektuan parte-hartzearen berri eman eta dinamizatzeko <http://pecp2017.ikertalde.com/?lang=eu> (gaztelania/euskera)

Iruñeko
Merkataritzaren
Plan Estrategikoa

Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

Proyecto | Participación | Redes | Contacto

PECP 2017 | 2021

Proyecto del Servicio de Economía Social, Empleo, Comercio y Turismo del Ayuntamiento de Pamplona

Iruñeko merkataritza sektoreko elkarte eragileekin lehen elkarrizketa erronda.

info >...

Plan Estratégico de Comercio | Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala

Objetivos - Helburuak

Inquietudes y objetivos del Plan de Comercio. - Merkataritza planaren ardura eta helburuak

Procesos - Prozesuak

Los procesos, calendarios y fases del proyecto. - Proiektuaren prozesu, egutegi eta faseak.

Tus ideas... - Zure ideiak...

Participa y comparte tus ideas. - Parte hartu eta zure ideiak partekatu.

b) Hiru lan saioen ospakizuna Descalzoseko Igoailuen udal aretoan, 2. Solairua Descalzos Kalea 56 Iruña.

a. Lehenengo lan saioa (2017ko azaroaren 16a) (atxikitutako materiala ikusi):

- i. *Lehenengo Zatia: Iruñeko Merkataritzaren Diagnosiaren aurkezpena*
- ii. *Bigarren zatia: Gogoeta eta begirada partekatuen bilaketa bi Mahaien dinamizazioaren bitartez: Merkataritza Erdigunea eta Auzoak*

b. Bigarren lan saioa (2017ko abenduaren 13a) (atxikitutako materiala ikusi):

- i. *Lehen Atala: Diagnosi Sintesia eta Ekintza Planaren printzipio eta helburuak*
- ii. *Bigarren Atala: IMPE 2017 – 2011-aren Egituraren aurkezpena eta Ekintza Planeko Ardatz eta ekintza lerroen aurrerapena*
- iii. *Hirugarren Atala: Proposatutako Ardatz eta Ekintza Lerroen lehenespena Garrantziaren arabera (baxua/ertaina/altua) eta Urgentzia (baxua/ertaina/altua)*

c. Hirugarren lan saioa (2018ko urtarrilaren 17a) (atxikitutako materiala ikusi):

- i. *Lehenengo Atala: IMPE 2017 – 2021eko Ekintzen xehetasunen aurkezpena merkataritza elkarte-ehunaren feed back-a*
- ii. *Bigarren Atala: IMPE 2017 – 2021eko Aurrekontu Sintesiaren Aurkezpena*



c) Bi Merkataritza Mahaian burutzea

- a. **Lehenengo Merkataritza Mahaia (2017ko irailaren 14a):** bertan, aholkulari taldeak Iruñeko Merkataritzaren Plan Estrategikoa 2017 – 2021aren eraikuntza prozesua aurkeztu zen
- b. **Bigarren Merkataritza Mahaia (2017ko abenduaren 19a):** bertan, Merkataritza Ereduaren Ezaugarriak eta IMPE 2017 – 2021-ari lotutako helburuak, nahiz IMPE 2017 – 2021-aren egitura eta ekintza lerroen Aurrerapena izan ziren ardatz.

d) Laneko barne bilera desberdinak Iruñeko Udaleko Enplegu, Merkataritza eta Turismo arloko arduradun eta tekniko desberdinekin

e) Auzoetako elkarte desberdinek parte-hartzeko bilera irekia (2018 urtarrilaren 31) hirugarren lan jardunaldian aurkeztutako Ekintza Planaren proposamenak eta doikuntzak jasotzeko helburuarekin. (Arrotxapea – Salvadoko Merkataritza Elkarte/ Iturramako Merkataritza Elkarte, Martín Azpilicuetako Merkataritza Elkarte, Sanduzelai auzoko merkataritza eta bizilagunen Elkarte eta Txantreako Merkataritza Elkarte)

f) Aurrez aurreko elkarrizketa pertsonalak Iruñeko merkataritza sektoreko eragileekin (2017ko irailaren 27an, irailaren 28an eta 2017ko urriaren 4an izandakoak)

1. Nafarroako Elikagai Artisauen Elkarte
2. Ermitagaña Merkatuko Merkataritza Elkarte / Zabalguneko Merkatuko Merkataritza Elkarte
3. Santo Domingoko Merkatuko Merkataritza Elkarte
4. Nafarroako Merkataritza Elkarte / Asociación de Comerciantes de la Zona de Martín Azpilcueta de Pamplona – Iruñeko Martín Azpilcueta Zonaldeko Merkataritza Elkarte
5. Arrotxapea – Salvadoko Merkataritza Elkarte / Iturramako Merkataritza Elkarte
6. Ensanche Área Comercial – Zabalguneko Merkataritza Gunea Elkarte
7. Iruñeko Alde Zaharreko Merkataritza Elkarte
8. Mendillorriko Merkataritza Elkarte
9. Nafarroako Merkataritza Elkarte
10. Donibane - Ermitagaña –Mendebaldeko Merkataritza Elkarte

g) Aurrez aurreko elkarrizketa pertsonalak erakunde eragileekin

1. Iruñeko Udaleko Euskara Zerbitzua
2. Kultura, Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kirol Arloa
3. Hirigintza eta Etxebizitza (Hiri Bizigarria eta Etxebizitza)
4. Mugikortasun Iraunkorra (Hiri Ekologia eta Mugikortasun Arloa)
5. Gobernu Gardentasunaren Arloa
6. Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa
7. Herritarren Segurtasun eta Elkarbizitza Arloa
8. Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusia

h) kontaktu pertsonalak, telefono bidezkoak edo mail bitartez elkarte desberdinetako teknikoekin, biziagoak ziren kontaktuak IMPE 2017 – 2021eko Ekintza Planaren doikuntza eta hobekuntza prozesuan (2018ko urtarrila eta otsaila)

1. Eranskina: **Merkataritza mahaiekin lotutako laguntza materialak**

2. Eranskina: **Lan mahaiekin lotura duten laguntza materialak**
